

-EUSKAL HERRIKO EMAKUMEON MUNDU MARTXARAKO PLATAFORMA-

ETXEKOLANETAN GREBA EMAKUMEOK KALERA!

Berriro ere kalera. Emakumeok irailak 26 honetan berriz ere kalera irtengo gara, Raxoiren “azken belaunaldiko” eraso eta murrizketa sozialen aurka borrokatzera.

Erratzak, amantak, garbitzaileak, erosketarako orgak eta beste hainbat arma eskuetan hartu eta soldatapeko nahiz soldatarik gabeko emakumeok plazak hartuko ditugu aspaldian ezagutu gabeko ofentsiba kapitalista honi gure erresistentzia agertzeko eta berriro ere, jendarte heteropatriarkala jomugan jartzeko.

Gure bizitzak prekarizatzen jarraitzen duten heinean, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxatik irakurketa eta ekintza feministak propio bat defendatu nahi dugu testuinguru atzerakoi honetan; atzerakoia ekonomia eta finantzen ikuspuntutik, baina baita moralaren eta antzinako tradizioen aldetik ere. Eskuinak ez du barkatzen.

Zentzugabea iruditzen zaigu ezinezkoak diren erreskate eta egiturazko doikuntza politiken alde egitea berauen emaitza kaltegarriak ikusita. Ez dute ezer konpontzen! Pertsonak ez gaude salgai!

Onarturiko erreformek (lan erreformek eta pentsio erreformek) zein murrizketek edota finantza sistemaren bost erreformek ez dute ezer lortu, eta gainera, emakumeok hondamendi guzti honen ondorioei, gainsari bereziarekin ari gara aurre egiten.

Uda honetan zehar, Spainiko gobernuak gure aurka egin du gogor, hala, beti banka eta kapitalaren onurarako doazen neurri eta murrizketa gogorrak onartuz. Neurri ezagunen artean ditugu: osasun zerbitzua eskaintzeagatik etorkinei ordainaraztea, pentsioen aurkako neurri eta proposamenak, langabezirako prestazioen murrizketak, BEZaren igoera, banku txar bat sortzearen iragarpena, finantza erreforma berria, etab. Eta guzti hauen aplikazioa inolako genero inpakturik kontutan hartu gabe egin da; honez gain, ez da kontuan hartu neurri guzti hauek bereizkeria sozialen sakontzea ekarriko dutela (genero, arraza eta klase irakurketa).

“Shock” politika hauen prezioa ordainezina da. Oinarrizko elikagaien saskia eta oinarrizko zerbitzuen kostuen prezioak ikaragarri igo diren bitartean, gure soldatak (eta soldatu faltak) behera doaz. Eta kontuan hartzen ez den baina emakumeok ederki badakigun bizi iraupenerako den ekonomia horren kudeaketa zeinengain geratuko den berriro ere. Horregatik, politika basati hauen aurrean, zaintza lanak ere barnebilduko dituen ekonomia bat aldarrikatzea beharrezkoa da. Pertsonak ez gara hondakinak! Ezin da pobrezia eta babes sozialerako sistema kriminalizatu gobernuek beraien hartzekodunak ordaintzeko!

Zentzu honetan, dependentzia arloan eginiko prestazioen murrizketak azpimarratu behar ditugu. Prestazio ekonomiko hauek murrizteari ekin diote, egokiak diren zerbitzu sozialak bultzatu gabe. Honela, dependentzia egoeratarako zerbitzu eta prestazioen egutegia martxan jartzea atzeratzen da. Eta orduan, nola sostengatzen dira bizitzak?

Honegatik guztiagatik ondorengoa aldarrikatzen jarraitzen dugu:

-ETXEKO ETA ZAINTZA LANAK, ERREKONOZIMENDURIK GABEAK ETA GARANTIETAN HANKAMOTZ DIRENAK, LANAK DIRELA.

-SISTEMA EKONOMIKO ETA SOZIAL HONEK EMAKUMEOK EGITEN DUGUN LAN IKUSEZINAREKIN DAUKAN ZOR HISTORIKOA IKARAGARRIA DELA, MERKATUEKIN DUENA BAINA HANDIAGOA IZANIK.

-PERTSONAK ETA BIZITZAK GARELA LEHENTASUNA, ETA EZ MERKATUAK.

-BADA GARAIA ETXEETAN ERE GREBA EGITEKO!

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxatik dei bateratu bat egiten dugu irailak 26an Hego Euskal Herriko sindikatu eta mugimendu sozialek deituriko Greba Orokorrarekin bat egiteko. Egiturazko eta sarraski politika hauen aurrean desobedientzia zibilerako apostua egiten dugu, baita errekonozimendu eta baliorik gabeko lanetan greba egitea ere, bizitzaren iraunkortasunerako guztiz beharrekoak diren lanetan hain zuzen ere.

ETXEKOLANETAN GREBA EMAKUMEOK KALERA!

-EUSKAL HERRIKO EMAKUMEON MUNDU MARTXARAKO PLATAFORMA-

2012.ko irailak 22, Donostia



-EUSKAL HERRIKO EMAKUMEON MUNDU MARTXARAKO PLATAFORMA-

**ETXEKOLANETAN GREBA
EMAKUMEOK KALERA!**

Otra vez a las calles. Otra vez las mujeres a las calles este 26 de septiembre y en primera línea de lucha ante los ataques y recortes sociales de “última generación” del gobierno de Rajoy.

Con fregonas, escobas, carritos y demás armas en mano, las mujeres asalariadas y no asalariadas, nos visibilizamos en medio de la plaza como protagonistas de una ofensiva capitalista sin parangón reciente y como diana además, de esta sociedad heteropatriarcal.

Mientras nuestras vidas se siguen precarizando, desde la Marcha Mundial de Mujeres de Euskal Herria abogamos por una lectura y acción feminista propia en este contexto reaccionario tanto desde la economía y las finanzas así como desde la moral y las viejas costumbres. La derecha no perdona.

Nos parece aberrante que se apueste por rescates imposibles y políticas de ajuste estructural viendo los nefastos resultados que están teniendo. ¡No solucionan nada! ¡Las personas no estamos en venta!

Ninguna de las reformas (laborales o de pensiones)emprendidas, ni los recortes, ni las cinco reformas del sistema financiero han conseguido nada, y las mujeres estamos enfrentando de sobremanera y con plus adicional las consecuencias de todo este desastre.

Durante este verano el gobierno español ha ido aprobando medidas y recortes graves en nuestra contra y siempre en beneficio de la banca y el capital. Entre las medidas más sonadas: el pago de la asistencia sanitaria por parte de las personas inmigrantes, medidas y propuestas contra las pensiones, reducción de la prestación por desempleo, subida del IVA, la creación del banco malo, reforma financiera, etc, etc... Y la aplicación de todas ellas como si no tuvieran impactos de género ni en la aceleración de las desigualdades sociales (lectura de género, raza y clase).

El precio de estas políticas de shock son impagables... porque mientras la canasta básica, los bienes y servicios están por los aires nuestros salarios (y no salarios) están por los suelos. Y ya sabemos quién gestiona toda esta economía a menudo de subsistencia. Es necesario reivindicar una economía de cuidados y de sostenibilidad de la vida ante esta economía de exterminio. ¡No hay personas desecharables! ¡No se puede criminalizar la pobreza y el sistema de protección social para que los gobiernos puedan pagar a sus acreedores!

En esta línea, cabe destacar el recorte en las prestaciones económicas por dependencia. Se recortan las prestaciones económicas existentes sin impulsar los servicios sociales pertinentes. Se retrasa la entrada en vigor del calendario de aplicación de los servicios y prestaciones de cobertura a la situación de dependencia. ¿Cómo se sostiene esto?

Por todo ello seguimos reivindicando que:

- EL TRABAJO DOMÉSTICO Y DE CUIDADOS, NO RECONOCIDO Y CARENTE DE DERECHOS Y GARANTÍAS, TAMBIÉN ES TRABAJO.
- EL SISTEMA ECONÓMICO Y SOCIAL TIENE UNA DEUDA HISTÓRICA CON EL TRABAJO INVISIBILIZADO QUE REALIZAMOS LAS MUJERES MÁS GRANDE QUE CON LOS MERCADOS.
- LA PRIORIDAD SOMOS LAS PERSONAS Y LA VIDA Y NO LOS MERCADOS.
- ¡YA ES HORA DE HACER UNA HUELGA EN LAS CASAS!

Por todo ello, desde la Marcha Mundial de Mujeres de Euskal Herria hacemos una llamamiento conjunto para secundar la Huelga General convocada para el próximo 26 de septiembre por sindicatos y movimientos sociales de Hego Euskal Herria en un esfuerzo colectivo de desobediencia civil ante políticas de desajuste y exterminio y ante la necesidad de parar también en los trabajos no reconocidos, ni valorados y totalmente necesarios para la sostenibilidad de nuestras vidas:

**ETXEKOLANETAN GREBA
EMAKUMEOK KALERA!**

-EUSKAL HERRIKO EMAKUMEON MUNDU MARTXARAKO PLATAFORMA-

2012.ko irailak 22, Donostia

